

Bi langile hil dira astearte honetan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 21/09/2023

Adunan eta Amurrión izan zuten lekuko lan istripuak eta hauekin 38 dira bizitza galdu duten langileak Euskal Herrian urtean zehar.

Irailaren 19an 35 urteko emakume langile bat hil da Adunan, traktore batekin sagarrak biltzen ari zela izandako lan-istripu batean, Aldundiko suhiltzaileek jakitera eman dutenez. Iturri horren arabera, ezbeharrak 14:45 aldera gertatu da, traktorea gidatzen ari zen emakumea istripua izan duen ibilgailuaren eta zuhaitz baten artean harrapatuta geratu denean, herriko sagardotegi batetik gertu.

Astearte honetan baita ere Consorcio haurreskolako langile batek galdu du bizitza lanetik atera eta ondoren, etxeko bidean. 32 urteko gaztea gidatzen ari zen autoak eta kamioi batek aurrez aurre talka egin zuen. Ibilgailu astuneko gidariak hainbat lesio izan zituen.

Honekin 38 lagile hil dira Euskal Herrian 2023ko urtean zehar.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/bi-langile-hil-dira-astearte